

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abenduaren 2tik abenduaren 6rako astea

➤ INGURU MAKROA:


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEAK: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisisia


Euroguneko PMI konposatua 50,6 puntutan kokatu zen azaroan. Zerbitzuen sektorearen kasuan, PMI indizeak 51,9 puntu eskuratu zituen, eta manufakturen sektoreko datua, berriz, 46,9 puntukoa izan zen. Herrialdeka, Alemaniako PMI konposatua 49,4 puntutan kokatu zen, eta 52,2 puntutan Frantziakoa.

Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hilero bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN ISMa



Datuaren analisisia


ISM manufaktura-indizeak bi hamarren egin zituen behera azaroan, 48,1 puntutaraino. Aldiz, merkatuak 49,4 puntutara igotzea espero zuen. Elkarren segidako laugarren hilabetea da, beraz, indizea 50 puntuen azpitik kokatzen dela. Bestalde, **manufaktura ez den ISMa** zortzi hamarren jaitsi zen, 53,9 puntutaraino. Datua analistek espero zutena baino kaskarragoa izan zen, 54,5 puntueta soilik jaitsiko zela aurreikusi baitzuten.

Adierazlearen azalpena

ISM Manufaktura-indizea konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hilero egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Manufaktura ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisisia

Nekazaritzakoak ez diren nominak hazi egin ziren **Estatu Batuetan**; izan ere, 266 mila lanpostu berri sortu baitziren, merkatuak espero zituen 180 mila nomina berriak gaindituz. Bestalde, soldatak % 0,2 igo ziren azaroan, merkatuak espero zuen % 0,3aren azpitik. Hala ere, % 3,1 hazi dira azken urtean, adituek aurreikusitako % 3,0ko igoera gaindituz. **Enplegu-tasa**, aitzitik, % 3,5 jaitsi zen azaroan.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMI CAIXIN



Datuaren analisisia

Joan den hilean, **Caixin/Markit zerbitzuen indizea (PMI)** 53,5era igo zen aurreko hileko 51,1etik. Erreferentzia **konposatua**, bestetik, 52,0tik 53,2ra igaro zen.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
12/09	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.2
12/09	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	¥138.8b
12/09	Alemania	Balantza komertziala	19.3b
12/09	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	-5.3
12/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 4.3
12/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 0.4
12/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 1.2
12/10	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-22.0
12/10	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	0.0
12/10	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
12/11	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2.0
12/11	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 1.50
12/12	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.1
12/12	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.0
12/12	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 2.4
12/12	Eurogunea	EBZren birfinantzaketa mota nagusia	% 0.000
12/12	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	212k
12/13	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
12/13	Espainia	Urte arteko KPIa	% 0.4

BURTSA:

Burtsa-indizeek ia-ia aldaketarik gabe edo beherakada txikiekin amaitu zuten astea AEBetan eta Europan, eta balantze positiboarekin gorakorretan. Gainera, gerra komertzial bat pizteko beldurak merkatuetan eragina izan zuen beste behin. Izan ere, Trumpek adierazi zuen ez dagoela akordioa sinatzeko epe zehatzik ezarrita eta 2020ko azaroan egingo diren AEBetako presidentetzarako hauteskundeak osterara arte atzeratu daitekeela. Bada, egoera horrek zalantzak eragin zituen AEBen eta Txinaren arteko akordio komertzialaren inguruan. Horrez gain, AEBek harri eta zur utzi zituen merkatuak Brasil eta Argentinako altzairu eta aluminioari muga-zerga berriak jarriko zizkietela iragarri zuenean, euren txanponen balio-gutxitzeari erantzuteko (nahiz eta txanpon horiek babesteko saiakerak egin). Etxe Zuriaren mehatxuak Frantziara ere heldu ziren, zenbait produktu frantsesi muga-zergak ezarri nahi dizkietelako, Google tasari erantzuteko. Amaitzeko, Trumpek muga-zergak handitzeko mehatxua egin zion Alemaniari, defentsan egindako gastu txikiagatik. Nolanahi ere, asteak aurrera egin ahala Trumpen adierazpenak leuntzera egin zuten, eta Txinak Estatu Batuetatik inportatutako soja eta txerriaren zati bati muga-zergak kentzeko pausuak ateak ireki zizkion akordioaren lehenengo faseari ekiteko aukerari. Inguru makroan, hauexek izan ziren merkatuaren arreta piztu zuten datuak: azaroko Euroguneko PMlen behin betiko datuak, bai manufaktura bai zerbitzuaren gorantz berrikusi zirenak, Amerikako manufaktura ISMa, laugarren hilabetez jarraian uzgurdura-mailaren azpitik kokatu zena, eta enpleguaren datu ona.

ERRENTA FINKOA:

Esparru komertzialean tentsio berriak piztu baziren ere, zor subiranoan mugimendu saltzaile handia eman zen Atlantikoaren bi aldeetan. Horiek horrela, 10 urterako tasa europarra eta amerikarra 7 eta 6 oinarritzko puntu igo ziren, hurrenez hurren. Espainiako arrisku-primak, aldiz, ez zuen ia aldaketarik izan. Kredituak, bestalde, diferentzialak pixka bat estutu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarrak balio apur bat galdu zuen euroaren aldean, merkataritza-gaien inguruko albisteek eragindako truke-tasaren joan-etorriko mugimenduen ondorioz. Liberak, bestalde, balioa irabazi zuen euroaren aurrean, zundaketek Boris Johnsonen kontserbadoreei garaipena eman zieten astean. Lehengaiei begira, petrolioaren prezioa % 6,72 igo zen, 2020ari begira ekoizpen-murrizketa gehigarri bat egingo delako eta AEBetako petrolio gordinaren erreserbek behera

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
MSCI WORLD (Local)	1.760,85	-0,04	22,16
IBEX 35	9.382,70	0,33	9,87
DJ EURO STOXX 50	3.692,34	-0,30	23,02
DJ STOXX 50	3.335,21	-0,28	20,84
FTSE	7.239,66	-1,45	7,60
S&P 500	3.145,91	0,16	25,49
Dow Jones	28.015,06	-0,13	20,09
NASDAQ	8.656,53	-0,10	30,46
NIKKEI 225	23.354,40	0,26	16,69
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	58.671,36	0,66	9,82
MEXBOL	41.938,69	-2,06	0,72
BOVESPA	111.125,80	2,67	26,44
SHANGHAI	3.051,31	1,39	16,85
Errusia Rts Mosku	1.448,34	0,69	35,52

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,63	0,00	-0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	0,01	-0,14
AEB 2 URTE	1,61	0,00	-0,87
ALEMANIA 10 URTE	-0,29	0,07	-0,53
ESPAINIA 10 URTE	0,49	0,08	-0,92
AEB 10 URTE	1,84	0,06	-0,85
ALEMANIA 30 URTE	0,24	0,09	-0,64
ESPAINIA 30 URTE	1,36	0,08	-1,25
AEB 30 URTE	2,28	0,07	-0,74
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	47,22	-0,58	-41,15
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	221,14	-0,10	-132,55

Dibisak	Maila	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,11	0,39	-3,55
Yena / Euroa	120,12	-0,41	-4,43
Libera / Euroa	0,84	-1,15	-6,28

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	65,46	6,72	23,11
Urrea	1.460,16	-0,26	13,86

egin dutelako. Urreak, bestetik, % 0,26 egin zuen atzera,
1.460,16 \$/ontza mailaraino.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.